

# EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2016ko 1. hiruhilekoa

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

OGASUN ETA FINANTZA  
SAILA  
*Ekonomia eta Planifikatza Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y FINANZAS  
*Dirección de Economía y Planificación*



## LABURPENA

2016ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiak %3,3 areagotu zuen bere BPGa urte arteko tasan, aurreko emaitza bi hamarrenetan hobetuz. Horri esker, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako ekonomiak bederatzi hiruhileko kateatu ditu gero eta gehikuntza tasa handiagoak biltzen. Goranzko joera hori ez da Europako ekonomietan gertatzen. Aitzitik, herrialde horietan egonkortasuna da nagusi, beheranzko joera txiki batekin. Izan ere, Europar Batasuna %1,8 hazi zen urte hasieran eta Eurogunea, berriz, %1,7. Ez bata ez besteak ez zuten 2015eko azken datua gainditu. Hiruhileko arteko tasan, EAEko BPGaren gehikuntza %0,8 izan zen, aurreko epealdien antzera. Horrek bermatzen du bigarren hiruhilekoko hazkundea ere nabarmena izango dela. Orobat, BPG nominalaren ziklo-joera osagaiaren zenbatekoak serie historiko osoaren baliorik gorena lortu zuen, 2008an eskuratutakoak gaindituz.

BPGaren ekarpenari dagokionez, 2016ko hasierako bultzada guztia barne eskariaren sendotasunean oinarritu zen, kanpo saldoak esportazioen bultzada inportazioen antzeko hazkunde batekin konpentsatu zuen bitartean. Zehazkiago, esportazioak %4,2 hazi ziren termino errealean, aurreko emaitza bikoiztuz, eta inportazioak %3,9 areagotu ziren epealdi berean.

Barne eskariaren bi osagaiak aurreko erritmoa bizkortu zuten eta %3,0ko langa gainditu zuten urte arteko tasan. Azken kontsumoari dagokionez, familien gastuak 2015eko erdialdeko hiruhilekoetan jaso zuen %3,3ko tasa berreskuratu zuen, iazko amaieran bizi zuen moteltze arinaren ondoren. Enpleguaren gorakadak, kontsumoko prezioen jaitsierak, kreditu bat lortzeko orduan dauden erraztasun gero eta handiagoek, igurikimenen hobekuntzak eta soldaten igoera txikiak azaltzen dute kontsumo pribatuaren bizitasun hori. Administrazio publikoen kontsumoa, berriz, %2,4 hazi zen urte arteko tasan, baina osagai horrek tamaina handiko gorabeherak izaten ditu urtean zehar.

Kapital eraketa gordinak suspertze bizkorreko prozesuari jarraipena eman zion eta %3,4 hazi zen urte arteko tasan, aurreko balioa zortzi hamarrenetan hobetuz. EAEko ekonomiaz eta ingurukoaz dauden igurikimen baikorrak, finantzaziorako baldintza hobekak eta zaharkituta geratu diren ekipoak ordezkatzeko beharra dira osagai horren bizitasuna azaltzen duten arrazoietako batzuk. Hala ere, portaera oso ezberdina izan zen ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioan, industriari oso lotuta baitago, eta eraikuntzan eginikoan. Hain zuzen ere, lehen kasuan gehikuntza tasa %10,7ra iritsi zen, 1998tik ikusi ez den intentsitate delarik. Aitzitik, gainontzeko inbertsioa %0,2 baino ez zen areagotu.

Eskaintzaren ikuspegitik, azpimarratu behar den ezaugarria da industriak 2016ko lehen hiruhilekoan erakutsi zuen sendotasuna, urte arteko tasan %4,8 handitu zuelako bere balio erantsia, aurreko datua puntu erdi batean gaindituz. Beste aldetik, zerbitzuek 2015eko laugarren hiruhilekoan galdu zuten bultzadaren zati bat berreskuratu zuten eta %3,0ko urte arteko tasa lortu zuten. Aurreko hiruhilekoetan bezala, 2016ko hasieran ere arlo pribatuari lotuago dauden jarduerak dinamismo handiagoa erakutsi zuten. Zehatz-mehatz adierazita, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak %3,1 handitu zuten bere balio erantsia, aurreko emaitzetatik aldentzen ez den zenbakia baita. *Gainontzeko zerbitzuak* izeneko taldeak, berriz, %3,4ko urte artekoa jaso zuten. Talde horretan finantza, higiezinen eta bestelako jarduerak biltzen dira. Azkenik, administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldea %2,2 hazi zen, aurreko emaitzetatik gehiegi aldendu gabe. Hiruhilekoaren emaitzen artean horren positiboa izan ez zen alderdia eraikuntzaren bilakaera izan zen berriro (%-0,3).

BPGaren sendotasuna lan merkatura ere hedatu zen eta enpleguaren gorakada aurreko hiruhilekokoaren antzekoa izan zen. Hain zuzen ere, Eustatek hiruhilekoko kontabilitatean zenbatetsi duen lanaldi osoko lanpostuen kopurua %1,9 handitu zen urte hasieran, hots, aurreko hiruhilekoko baina hamarren bakar bat gutxiago. Tasa horrek esan nahi du 2015eko lehen hiruhilekoan zeudenak baino ia 17.000 lanpostu gehiago daudela orain. Eraikuntzak bakarrik murriztu zuten langile kopurua. Aitzitik, industriak nabarmen hobetu zituen emaitzak enplegu alorrean.

Ekoizpenaren bizitasunak ez ditu prezioak gorarazi, petrolio gordinak nazioarteko merkatuetan bizi duen merkatzeak oraindik baldintzatzen dituelako. Izan ere, BPGaren deflatorea %0,1 bakarrik hazi zen 2015eko lehen hiruhilekoaren aldean. Kontsumoko prezioek, berriz, %0,3ko jaitsiera jaso zuten lehen hiru hilekoen batez bestekoan, baina apirilean eta maiatzean %-0,7ra areagotu zen beherakada. Halaber, azpiko inflazioak goranzko joera leuna baina etengabea bertan behera utzi zuen eta %0,8ra apaldu zuen urte arteko aldakuntza, batez ere Aste Santua 2015ean eta 2016an hileko ezberdinetan ospatu zelako.


Datozen hiruhilekoei begira, Ogasun eta Finantza Sailak bere horretan utzi ditu martxoan egin zituen aurreikuspenak eta %2,5eko hazkundea espero du 2016ko urte osorako. Tasa hori aurreko urtean jasotakoa baino hiru hamarren txikiagoa da. Ekonomiaren gorakada hori barne eskariaren sendotasunean eta kanpo saldoaren ekarpen txiki batean oinarrituko da. Orobat, bai industriak bai zerbitzuek balio erantsia nabarmen areagotuko dute. BPGaren emaitza onekin batera lan merkatuaren ere iritsiko dira eta enplegu sorrera %1,7aren ingurukoa izango da, 2015ekoaren antzekoa.

## EKONOMIAREN INGURUNEA


2016ko lehen hilekoetan, munduko ekonomia jarduerak erritmo motelean hazten jarraitu zuen, baina aurreko datua baino zertxobait gehiago. Interes tasa apalek, lan merkatuen hobekuntzak eta konfiantzaren igoerak ekonomia aurreratuen gehikuntza finkatu zuten. Beste aldetik, kapital fluxuen berreskurapenak eta Txinak, antza denez, bizi duen lurreratze leunak bilakaera positiboagoa erakutsi zuten garapen bidean dauden herrialdeetan. Azken horien artean, Indiaren bilakaera bikaina azpimarratu behar da.

### Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak


AEB




Europar Batasuna



Txina



India



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Ekonomia garatuek hedatzeari eutsi zioten, nahiz eta hazkunde erritmoa berriro gutxitu zuten. Izan ere, ELGEn parte hartzen duten herrialdeak %1,8 hazi ziren, hots, aurreko hiruhilekoan jaso zuten emaitza baino bi hamarren gutxiago, baina azken urteetako batez bestekotik desbideratu gabe. Azaleratzen ari diren herrialdeen artean, nolabaiteko hobekuntza hauteman zen. Europako Ekialdeko eta Erdialdeko ekonomiek aurreko hiruhilekoetako bizitasunari atxiki zioten (Errumaniak %4,2, Eslovakiak %3,7 eta Txiprek %2,7 hazi ziren), badirudi Txinak moteltzea kontrolpean daukala eta Indiak berriro egin zuen gora oso sendo. Halere, eremu horren bilakaera ez dago guztiz finkatuta eta epe ertaineko igurikimenak zalantzasz beterik daude oraindik. Hain zuzen ere, herrialde lehengai esportatzaileak prezioen jaitsierara egokitzen ari dira oraindik eta horrek beste atzerakada bat ekarri die ekonomia nagusi bati baino gehiagori. Esate baterako, Brasilek bi urte bete ditu atzeraldian, bertako BPGa %5,1 murriztu ondoren. Errusiak, berriz, %1,2 gutxitu zuen BPGa, petrolioaren prezioak izan zuen beherakada bortitzak eta mendebaleko zigorrek baldintzatuta. Halere, bi kasuetan tasa horiek aurreko hiruhilekokoak baino hobeak dira.

Txinak, berriz, ezuste positiboa eman zuen aurtengo lehen hilekoetan nahiko egonkor mantendu zelako. Herrialde hartako BPGa %6,7 hazi zen, aurreko hiruhilekokoak baino hamarren bat gutxiago. Izan ere, azken bost hiruhilekoetan, Txinako BPGa hiru hamarrenetan bakarrik apaldu da. Horrek pentsarazten du munduko bigarren ekonomiaren moteltzea, abiarazi dituen erreformek eraginda, agian amaierara hurbiltzen ari dela. Kanpo arloak hamarren batzuk kendu zizkion jarduerari, bai esportazioek bai inportazioek jaitsiera bizia ezagutu zutelako. Hala eta guztiz ere, zerbitzuak sendo hazi ziren berriro (%7,6), industriaren eta lehen arloaren bultzadak lagunduta. Inflazio tasa, berriz, hazi egin zen hiruhilekoan zehar eta apirilean %2,7an kokatu zen.

AEBetan, kontsumoak gorarazi zuen hazkundera. Inflazio apalak eta lan merkatuaren egoera onak familien kontsumoa %2,7an kokatu zuten. Izan ere, lan merkatua sendotasun handia erakusten ari da, langabezia tasa %5,0aren inguruan dagoela. Beste aldetik, kontsumo publikoak goranzko joera leunari segida eman zion eta %1,4ko tasa eskuratu zuen. Hala ere, egoitzaz bestelako inbertsioak nabarmen egin zuen behera, mea ustiapeneko egituretan, obretan eta putzuetan eginiko inbertsioak jaitsiera bizia izan zuelako. Orobat, dolarraren sendotasunak kalte egin zien esportazioei eta mesede, ordea, inportazioei. Aurreko guztiaren ondorioz, AEBetako BPGa %2,0 hazi zen berriro. Maila horrek 2015eko azken hiruhilekoarena berdindu zuen eta oraingoz geroratzen du moteltzearen ideia.

Japonian, kontsumo pribatuak ezin izan zuen hazkundera finkatu. 2015eko azken hilekoetan jasotako jaitsieraren aldean nolabaiteko hobekuntza erakutsi zuen arren, familien kontsumoak behera egin zuen berriro. Halaber, yenak dolarraren aldean izan zuen goranzko joerak eta Txinako eskariaren murrizketak (bi herrialde horiek dira Japoniako merkataritza bazkide

nagusiak) esportazioen beste jaitsiera bat eragin zuten, hori baita ekonomia japoniarraren beste zutabea. Herrialde hartako gobernuak saiatu zen beherakada horiek obra publikoetan eginiko inbertsio handiekin konpentsatzen, baina ez zen nahiko izan eta Japoniako BPGak hazkunde hutsala jaso zuen. Tasa horrek esan nahi du oraingo hazkundeak 2015eko azken hiruhilekokoak baino bederatzi hamarren beherago dagoela eta Japonia berriro dagoela atzeraldian sartzeaz. Datu positiboa lan merkatuak ekarri zuen, enplegu beteak dagoelako eta langabezia tasa martxoan eta apirilean %3,2an kokatu zelako.

Azaleratzen ari diren ekonomia batzuk moteldu ziren arren eta aurtengo lehen hilekoetan ziurgabetasun politikoa eta finantzarioa (banku sistemaren errentagarritasunaz zalantzak sortu ziren eta Greziako egoera kezagarria zen) bizi bazen ere, Europako Banku Zentralaren (EBZ) moneta politika egokitzailak, lehengaien prezio apalek eta euro merkeak bide eman zioten Europar Batasunari erritmo iraunkorrean (%1,8) hazteko. Hain zuzen ere, kontinente zaharrak hazkunde neurritsua baina egonkorra lortu zuen, non barne eskariaren agregatu guztiek ekarpena egin baitzioten hazkundeari. Kanpo arloak bakarrik kendu zizkion lau hamarren ekonomia jarduerari. Zehazkiago, bai Alemanian bai Frantzia inbertsioaren sendotasunak eta kontsumoaren bultzadak, batez ere publikoarenak, ahalbidetu zuten Alemania gehiago haztea eta Frantziak hazkunde erritmoa finkatzea. Erresuma Batuak, berriz, indarra galdu zuen berriro, inportazioen sendotasunak eta inbertsioaren bizitasun txikiagoak kaltetuta. Halere, bertako BPGa %2,0 hazi zen.

Lan merkatuari dagokionez, langabezia tasak susperraldi etengabe baina motelari eman zion jarraipena. Hain zuzen ere, apirilean Europar Batasuneko langabezia tasa %8,7ra jaitsi zen, azken zazpi urteko mailarik txikiena baita. Datu horren arabera, ia 21,2 milioi lagun daude lanik gabe Europan. Eurogunean, berriz, kopuru hori 16,4 milioi pertsonakoa da. Beheranzko joera hori orokorra da eremuko herrialdeetan, Letonian izan ezik, bertako langabezia tasa hamarren bat igo zelako. Ekarpenean esanguratsua egin zuten Txiprek, 4,1 puntu jaitsi baitzen bertan 2015eko apirilekoarekin alderatuta, eta Espainiak, 2,6 puntuko murrizketarekin. Azkenik, inflazioak eremu negatiboan jarraitu zuen. Petrolioaren eta beraren eratorrien prezioek 2015eko amaieran izan zuten merkatzeak prezioak baldintzatu zituzten eta apirilean %0,2 jaitsi ziren.

Ziurgabetasun politikoak jarraitzen duen arren, Espainiak hazkunde erritmo bizia eskuratu zuen berriro. Hain zuzen ere, BPGa %3,4 hazi zen lehen hiruhilekoan, aurreko emaitza baino hamarren bat gutxiago. Hedatzearen motorra barne eskaria izan zen, beste hiruhileko batez, bizitasun handia erakutsi zuelako, bereziki kontsumo pribatuaren bultzadari esker, lan merkatuaren bilakaera onak eta prezio apalek lagunduta. Halaber, kanpo saldoak protagonismoa bereganatu zuen eta ekarpen negatiboa gutxitu. Eskaintzaren ikuspegitik, adar guztiak hazi ziren, baina guztiek, zerbitzuek izan ezik, bizitasuna galdu zuten 2015eko amaieran eskuratu zituzten balioen aldean.

Analisia lan merkatuan fokatuta, hiruhilekoko kontabilitatearen datuek adierazten dute aurtengo lehen laurdenean enplegua %3,2 areagotu zela urte arteko tasan. Datu horrek esan nahi du lanaldi osoko 533.000 lanpostu baliokide sortu direla azken hamabi hilekoetan. Lehen arloa izan zen dinamikoena (%5,5), baina industriak eta zerbitzuek ere aurreko hiruhilekoko baina gehikuntza tasa handiagoa eskuratu zuten. Aitzitik, eraikuntzaren gorakada motelagoa izan zen. Joera positibo hori langabezia tasaren datuetara hedatu zen, apirilean %20,1era murriztu baitzen. Azken urtebetean, langabezia tasa 2,6 puntu jaitsi da, baina oraindik krisiaren aurretik zegoen tasa baino 10,2 puntu gorago dago. Azkenik, inflazioak atzera egin zuen berriro eta apirilean %-1,2an kokatu zen. Hori dela eta, Espainia da Euroguneko herrialdeen artean inflazio tasarik txikiena duen bigarren herrialdea, Txiprerren ondoren. Beraz, bederatzi hileko eman ditu tasa negatiboak jasotzen eta Eurogunearikiko diferentziala puntu bateko aldean dago oraindik. Horri esker produktu eta zerbitzu espainiarrek lehiakortasuna irabazten jarrai dezakete.

### ESPAINIAKO EKONOMIA. TAULA MAKROEKONOMIKOA

Urte arteko aldakuntza tasa

	2014	2015	2014		2015			2016
			IV	I	II	III	IV	I
Azken kontsumoko gastua	0,9	3,0	1,2	2,3	2,8	3,4	3,5	3,4
- Familien gastua	1,2	3,1	1,8	2,6	2,9	3,6	3,5	3,7
- Administrazioaren gastua	0,0	2,7	-0,5	1,5	2,5	3,0	3,7	2,6
Kapital finkoaren eraketa gordina	3,5	6,4	4,9	6,1	6,3	6,7	6,4	5,2
- Aktibo finko materialak	3,7	7,2	5,6	7,0	7,1	7,6	7,1	5,7
- Eraikuntzan	-0,2	5,3	4,1	6,2	5,2	5,2	4,6	3,1
- Ekipamendurako ondasunetan	10,5	10,2	8,1	8,3	10,1	11,2	10,9	9,8
- Jabetza intelektualeko produkt.	2,1	1,8	0,7	1,0	1,9	1,7	2,8	2,3
Nazio eskaria (*)	1,6	3,7	2,0	3,1	3,4	4,1	4,1	3,8
Esportazioak	5,1	5,4	6,5	5,8	6,0	4,5	5,3	3,7
Inportazioak	6,4	7,5	6,8	7,6	7,4	7,2	7,7	5,4
<b>BPG (m.p.)</b>	<b>1,4</b>	<b>3,2</b>	<b>2,1</b>	<b>2,7</b>	<b>3,2</b>	<b>3,4</b>	<b>3,5</b>	<b>3,4</b>
Nekazaritza eta arrantza	-3,7	1,9	-8,7	-4,0	2,0	3,7	6,2	5,5
Industria	1,2	3,4	2,5	3,0	3,6	3,8	3,4	2,6
Eraikuntza	-2,1	5,2	3,1	5,9	5,8	5,1	4,0	2,6
Zerbitzuak	1,9	3,1	2,5	2,7	3,0	3,3	3,4	3,5
Produktuen gaineko zerga garbiak	0,8	2,8	1,7	2,3	2,6	2,7	3,6	3,4
<b>GOGORATZEKOAK</b>								
- Kontsumoko prezioen indizea	-0,2	-0,5	-0,5	-1,0	-0,3	-0,4	-0,3	-0,7
- Enplegua (**)	1,1	3,0	2,4	2,9	3,0	3,1	3,0	3,2

Oinarri urtea: 2010. (\*) BPGaren hazkundeari eginiko ekarpena. (\*\*) Lanaldi osoko lanpostu baliokideak. Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).



## EAE-KO EKONOMIA

### Ekoizpena eta enplegua

2016ko lehen hiruhilekoan, EAEko ekonomiak berriro bizkortu zuen BPGaren hazkunde erritmoa eta %3,3ko urte arteko tasa eskuratu zuen. Tasa horrek bi hamarrenetan gainditu du aurreko datua eta azken zortzi urteetako baliorik gorena da. Bilakaera bizi eta goranzko hori urrun dago Europako ekonomiek azken hiruhilekoetan eskaini dituzten emaitza neurritsu eta egonkorretatik. Zehatz-mehatz adierazita, Europar Batasunak %1,8ko gehikuntza tasa jaso zuen aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko epealdian baino bi hamarren gutxiago. Eurogunea, berriz, %1,7 hazi zen, 2015eko amaierako tasa berdinduz. Espainia (%3,4) da, herrialde handien artean, EAEko hazkundera gainditu zuen ekonomia bakarra, baina ezin izan zuen berdindu 2015eko amaierako %3,5 hura. Beraz, bi ekonomien arteko aldea hamarren bakar batera murriztu da. Azkenik, adierazi behar da azken epealdietako hiruhileko arteko tasak %0,8aren inguruan daudela eta horrek bermatzen duela datozen hiruhilekoetan ere urte arteko hazkunde altuak jasoko direla.

#### ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015				2016
			I	II	III	IV	I
<b>BPG erreala</b>	1,4	2,8	2,2	2,7	3,0	3,1	3,3
Nekazaritza eta arrantza	-10,0	7,4	5,5	-3,0	7,3	22,3	9,3
Industria eta energia	1,5	2,7	0,3	3,1	3,1	4,3	4,8
- Manufakturen industria	2,3	2,8	0,4	3,2	3,3	4,5	4,7
Eraikuntza	-3,2	0,0	0,6	0,2	-0,2	-0,6	-0,3
Zerbitzuak	1,5	3,0	3,0	2,9	3,2	2,8	3,0
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	2,0	3,1	3,1	2,9	3,3	3,0	3,1
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,1	2,3	2,6	2,3	2,2	2,1	2,2
- Gainontzeko zerbitzuak	0,9	3,2	3,0	3,2	3,7	3,1	3,4
Balio erantsi gordina	1,1	2,8	2,2	2,7	3,0	3,1	3,3
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	3,8	3,0	2,7	2,9	3,3	3,1	3,2

Iturria: Eustat.

Aurreko buletinean adierazi zenez, EAEko ekonomiaren bi sektore nagusiek 2014an eta 2015ean hazkunde erritmoan erakutsi zuten simetriak tokia utzi dio orain industria jardueren bultzada

handiago bati, ordurako oso bizia zen gehikuntza nabarmen biziagotu zuelako. Hori horrela, EAEko industria %4,8 hazi zen urte arteko tasan, Europako industriak epealdi berean eskuratu zuen %1,7aren oso goitik. Beste aldetik, zerbitzuen bilakaera esanguratsua da oraindik, baina zertxobait apaldu da (%3,0).

## JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015		2016	2016	
			III	IV	I	Apirila	Maiatza
<b>Industria</b>							
Industria produkzioaren indizea	1,4	3,7	4,2	4,0	5,1	-0,7	---
Industria giroaren indizea	-12,6	-3,9	-1,8	-5,6	0,2	-4,1	-6,6
Ekoizteko ahalmen. erabilera (%)	76,1	79,7	79,1	78,5	79,3	---	81,9
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-2,2	-0,3	-0,1	0,5	1,3	1,6	1,4
<b>Eraikuntza</b>							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	-4,6	-0,4	-0,1	-1,1	-2,0	---	---
Obrak zuzentzeko bisatuak (etxeak)	2,0	45,5	-5,1	396,1	67,2	---	---
Etxebizitzaren salerosketak	8,8	17,2	20,8	11,8	24,9	12,0	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	-3,2	-0,5	-0,7	-0,1	-0,3	0,3	-0,2
<b>Zerbitzuak</b>							
Hegazkinen bidezko trafikoa	5,3	6,5	7,7	6,8	12,4	2,6	---
Hoteletan igarotako gaualdiak	4,0	8,2	7,4	10,7	20,3	2,7	---
Hoteletako okupazioa	46,4	49,8	68,4	45,3	37,7	46,4	---
Negozio zifren indizea	4,2	4,3	6,0	4,1	3,8	---	---
Zerbitzuen koiuntura indizea	1,3	2,5	3,9	2,0	3,2	---	---
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,4	2,8	2,7	2,9	2,6	2,4	2,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Energia eta Turismo Ministerio, Eustat, INE, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

Industriaren bizitasuna orokorra da, Eustatek osatzen duen industria produkzioaren indizeak eskaintzen duen informazioaren arabera. Izan ere, adierazle hori %5,1 hazi zen lehen hiruhilekoan, aurreko balioak gaindituz. Halaber, ekonomia helburuaren arabera sailkatuta dauden ondasun talde guztiek tasa positiboak jaso zituzten, baina beraien artean ekipamendurako ondasunen bilakaera ona nabarmendu zen. Produktu talde horrek, enpresen inbertsio beharretara oso lotuta baitaude, %13,7 areagotu zuen ekoizpena lehen hiruhilekoan eta lau hiruhileko pilatu ditu urte arteko tasa oso altuak eskuratzen. Gainontzeko taldeek ere emaitzak hobetu zituzten, baina aldakuntza tasa txikiagoekin. Esate baterako, kontsumorako ondasunek %2,1 hobetu zuten ekoizpena, 2015eko amaieran lortu zuten balioaren oso antzekoa

baita. Kontsumo iraunkorreko ondasunek (%3,5) balio nabarmenak izan zituzten berriro, baina moteltzeko joera garrantzitsua erakutsi dute 2015arekiko. Aitzitik, kontsumo iragankorrekoek %1,5era arte areagotu zuten hazkundera, hiru hiruhilekoz jarraian geldotasuna erakutsi ondoren. Energiaren taldeak gehikuntza apala (%1,7) izan zuen, nahiz eta alderaketa 2015eko hilekoekin egiten den. Gogoratu behar da garai hartan Petronor enpresa geldirik egon zela denbora batean inbertsio handiak egiteko. Azkenik, bitarteko ondasunek %3,0aren inguruko balioak eskuratu zituzten berriro.

Industriaren igurikimenak ere baikorrak izan ziren 2016ko lehen hiruhilekoan eta industria giroaren indizeak, Industria Ministerioaren datuekin osatzen baita, 0,2ko emaitza jaso zuen, serie historikoan aurkitu daitekeen balio positibo bakanetako bat. Baikortasun handiena ekoizpenaren etorkizuneko joeraz emandako erantzunetan hauteman da, emaitza positiboak eta altuak izan dituelako 2016ko hileko guztietan. Horri laguntza eman dio eskari zorroaren hobekuntzak, nahiz eta, oro har, daukaten zorroa gutxiegi iruditzen zaien. Halaber, saldu gabe dauden produktu amaituen stocka oso txikia da ikuspegi historiko batetik ikusita. Aurreko guztiari gehitu behar zaio enpresen ekoizteko ahalmenaren erabilera %80tik gora dagoela. Portzentaje horrek adierazi ohi du enpresa bat bete-bete lan egiten ari dela. Inkesta horrek lehen hiruhilekoan emaitza ona izan bazuen ere, dagoeneko ezagunak diren apirilko eta maiatzeko datuek iradokitzen dute sektoreak apur bat okerrera egin duela.

Zerbitzuei dagokienez, lehen hiruhilekoko bilakaera aurreko epealdietakoen antzekoa izan zen eta %3,0 hazi zen urte arteko tasan, bizitasuneko perfil batean egonkortasun nabarmena erakutsiz. Aurreko hiruhilekoan bezala, arlo pribatuarekin lotura eskuagoa duten jardueren aldakuntza tasa garrantzitsuak lortu zituzten. Zehatz-mehatz, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldeak %3,1 areagotu zuen bere balio erantsia, aurreko emaitzarekin alderatuta ia inolako diferentziarik ez dagoela. Beste aldetik, *gainontzeko zerbitzuak* izeneko taldea %3,4 hazi zen, kasu horretan aurreko hiruhilekoko datua hiru hamarrenetan gaudituz. Azkenik, administrazio publikoa, osasuna, hezkuntza eta gizarte zerbitzuak barnean hartzen duenak %2,0tik zertxobait goragoko balioetan jarraitu zuen.

Zerbitzuetako koiuntura informazioak seinalatzen du aldakuntza erritmoak bateragarriak direla kontu ekonomikoetako balio erantsiaren bilakaerarekin. Izan ere, Eustatek eskaintzen duen zerbitzuen koiuntura indizeak %3,2ko gehikuntza adierazi zuen sektore osorako, ibilgailuen salmentan (%11,8), ostalaritzan (%7,2) eta lanbide jardueretan (%10,9) oso gorakada handiak daudelarik. Beste aldetik, INEK zenbatesten duen zerbitzuen negozio zifra %3,8 areagotu zen epealdi horretan. Beste adierazle batzuek ere, hala nola turismoaren alorrekoek, oso bilakaera positiboa erakutsi zuten. Beraien artean, hoteletako gaualdiak %20,3 hazi ziren eta hegazkinez bidaiatu zuten lagunak %12,4 gehiago izan ziren. Hala ere, Aste Santuaren efektuak lagundu du zenbaki horiek horren altuak izaten.



Berrito ere, une hauetako bilakaerarik okerrera eraikuntzan gauzatu zen, urte arteko tasan balio erantsia berrito murriztu zuelako, kasu honetan %0,3. Datu horrek eta aurrekoek iradokitzen dute krisia hasi zenetik sektore horrek bizi izan duen doikuntza prozesu luzea amaierara iristen ari dela. Eraikuntzaren koiuntura indizearen datuek seinalatzen dute lehen hiruhilekoan eraikinen atalak obra zibilarenak baino bilakaera hobea izan zuela. Zehazkiago adierazita, indize orokorra %2,0 jaitsi bazen, eraikinen atalarena %0,5 bakarrik murriztu zen, obra zibilarenak %10,7 behera egin zuen bitartean. Eraikinen portaera hobea 2016ko lehen hilekoetara luzatu da, koiunturako beste datu batzuek adierazten dutenez, hala nola etxebizitzaren salmentak (%24,9) eta eraikin berriak egiteko bisatuak (%67,2).

Barne produktu gordinak lehen hiruhilekoan izan zuen gorakada garrantzitsuak enpleguaren hobekuntza esanguratsua ekarri zuen berarekin. Eustaten kontu ekonomikoek %1,9an zenbatetsi dute iguera hori, aurreko hiruhilekoko baino hamarren bakar bat gutxiago. Aldakuntza tasa horrek adierazten du 2015 eta 2016ko lehen hiruhilekoen artean lanaldi osoko ia 17.000 lanpostu sortu zirela EAEko ekonomian.

### Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak

Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak

Industriaren enpleguaren hazkundea 2015eko laugarren hiruhilekoan oraindik tamaina txikikoa izan bazen ere, aurtengo lehen hiruhilekoan goranzko bilakaera hori sendotu da eta sektoreak %1,2 areagotu zuen enplegua aurreko urteko epealdi beraren aldean. Beraz, 2.000 lanpostu

garbi baino gehiago sortu dira azken urtebetean. Hala eta guztiz ere, sortutako lanpostu gehienak zerbitzu alorraren jardueretan gauzatu ziren, %2,3 areagotu baitzen zerbitzuen enplegua, hots, aurreko hiruhilekoetan baino hamarren batzuk gutxiago, baina ekonomiari ia 13.000 lanpostu garbi gehitu dizkiote. Gainontzeko bi sektoreek ekarpen kontrajarriak eta oso txikiak izan zituzten, zeren eta eraikuntzan galdu ziren 100etik zertxobait gorako lanpostuak ia osorik konpentsatuak izan ziren lehen arloak sortutakoekin.

Gizarte Segurantzako afiliazioak baieztatzen du enpleguak bizi duen une gozoa eta bigarren hiruhilekoko lehen bi hilekoetara luzatu du, bizitasunean ia inolako aldaketarik gabe. Izan ere, lehen hiruhilekoan %2,1 hazi eta gero, apirileko eta maiatzeko batez besteko aldakuntza tasa %2,0an kokatu zen. Zenbaki hori ekainean ere jasoko balitz, bost hiruhileko jarraian kateatuko lirateke %2,0aren inguruko emaitzekin. Sektoreka aztertuta, zerbitzuek lortzen dituzte gehikuntza tasa gorenak, bizitasun handiena lanbide jarduerak (%4,3), ostalaritzak (%3,6) eta osasun arloko adarrak (%3,3) erakutsi zutelarik. Industriak, berriz, %1,5aren inguruan finkatu du bere hazkunde erritmoa. Azkenik, eraikuntzak afiliatuta daukan pertsonen kopurua egonkortu du.

ekoizpenaren eta enpleguaren bilakaera konbinatuak iradokitzen du itxurazko produktibitatearen irabazia %1,3 izan zela, azken bi urteko handiena, nahiz eta datu historikotik (%1,1) gehiegi ez alden. Berriz ere, industriak lortu duen produktibitatearen gehikuntza tasa (%3,5) nabarmentzekoa da, azken bederatzi hiruhilekoetan zortzi aldiz gaintu duelako %3,0ko irabazia, bere batez besteko historikoa %2,1 denean. Beste muturrean, ez zen inolako irabazirik eskuratu eraikuntzan (%0,0) eta zerbitzuetakoa %0,7 izan zen, bere datu historikotik (%0,6) oso hurbil. Azkenik, lehen arloak %8,6ko irabazia jaso zuen, baina sektore horretan gorakadak eta beherakadak askotan tartekatzen dira.

## Barne eta kanpo eskaria

2015eko azken zatian bizi zuen apaltzearen ondoren, barne eskariak protagonismoa berreskuratu zuen EAEko ekonomiaren bultzagile gisa eta 2016ko lehen hiruhilekoan %3,1 hazi zen, hots, aurreko emaitza baino hiru hamarren gehiago. Bultzada bizi horren ondorioz, BPGaren gehikuntza ia osoa barne eskariaren aldetik etorri zen, kanpo saldoaren ekarpena ia hutsala izan zen bitartean.

EAEko ekonomiaren hazkunde eredu, barne eskariaren aldetik, gero eta hobeagoa da, zeren eta bi osagaiek sendotasun nabarmena erakusten duten arren, kapital eraketa gordinaren pisua

gero eta handiagoa delako, azken kontsumoan eginiko gastua BPGaren gehikuntzaren azpitik dagoen bitartean. Zehazkiago aztertuta, azken agregatu hori %3,1 hazi zen, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gehiago, baina BPGak eskuratu zuen %3,3 hartara iritsi gabe. Beste aldetik, inbertsioaren multzoak gora egin zuen %3,4ko tasa jaso arte, aurreko balioa baino zortzi hamarren gehiago eta 2007tik izan duen daturik gorena. Inbertsioaren partaidetza altuak ekonomiaren etorkizuneko hazkundearen oinarriak jartzen ditu.

## ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015				2016
			I	II	III	IV	I
<b>BPG erreala</b>	<b>1,4</b>	<b>2,8</b>	<b>2,2</b>	<b>2,7</b>	<b>3,0</b>	<b>3,1</b>	<b>3,3</b>
Gastua azken kontsumoan	1,5	2,8	2,3	2,9	3,3	2,8	3,1
- Familien gastua kontsumoan	1,6	3,1	2,9	3,3	3,3	3,1	3,3
- Adminis. gastua kontsumoan	1,1	1,6	0,2	1,1	3,2	1,8	2,4
Kapital eraketa gordina	-0,6	2,0	1,3	1,8	2,2	2,6	3,4
- Ekipamendu ondasunak	3,0	6,5	3,8	5,9	7,4	8,8	10,7
- Gainontzeko inbertsioa	-2,1	0,0	0,3	0,0	-0,1	-0,1	0,2
Barne eskaria	1,1	2,6	2,1	2,7	3,1	2,8	3,1
Esportazioak	3,6	-0,2	-0,2	0,7	-3,2	2,1	4,2
Inportazioak	3,0	-0,2	-0,3	0,7	-2,8	1,6	3,9

Iturria: Eustat.

Hala familien kontsumoak nola administrazio publikoenak bilakaera dinamikoak eskaini zuten aurtengo lehen hiruhilekoan, aurreko emaitzak hobetu zituztenak. Esate baterako, familien kontsumoak 2015eko erdialdeko hiruhilekoetan jaso zuen eta urte hartako azken hiruhilekoan apaldu zuen %3,3ko tasa berreskuratu zuen. Enpleguaren bilakaera ona, konfiantza berreskuratu izana, ekonomiari buruzko igurikimenei hobekuntza, inflazio apala, soldata errealean igoera txikia eta interes tasa baxuak dira familiei gastuak egitera animatzen dien arrazoi nagusiak. Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da bai 2015eko amaieran bai 2016ko hasieran kontsumo pribatuaren hazkundera BPGaren gehikuntzara egokitu dela, aurreko hiruhilekoetan azken hau baino gehiago hazi zen bitartean. Kontsumo pribatuaren hazkundera BPGarena baino txikiagoa izatea komenigarria da zorpetzea ez handitzeko. Beste aldetik, administrazio publikoen kontsumoa %2,4 areagotu zen, baina ez da espero urtean zehar horrelako tasa altuei eutsiko dienik.

Kapital eraketa gordinak urte arteko gehikuntza garrantzitsua (%3,4) eskuratu zuen, 2007tik jaso dituen erregistro guztiak gaindituz. Hala ere, agregatu horren bultzada guztia ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioan gauzatu da, gainontzeko inbertsioak suspertzeko zantzurik eskaini gabe jarraitzen duen bitartean. Izan ere, ekipamendurako ondasunen atala %10,7 hazi zen, azken hamazazpi urteko epean ezagutu gabea den erritmo bikaina baita. Barne eskariaren sendotasunak eta kanpoko eskariari ere erantzuteko beharrak, ekoizteko ahalmenaren erabilera ordurako oso altua zen une batean, inbertsioaren bultzada hori lagundu zuten. Halaber, finantzazio eta energia kostu apalek eta aldeko igurikimenez ere inbertitzeko erabakiak hartzen lagundu dute. Aitzitik, gainontzeko inbertsioa, non eraikuntzan eginikoa barne hartzen den, %0,2 baino ez zen hazi, aurreko bi epealdietan baino hiru hamarren gehiago.

Ekipamendurako ondasunen inbertsioak izan zuen gehikuntza handi hori ondasun mota horien ekoizpenaz eta inportazioaz ezagutu diren koiunturako datuek baieztatzen dute. Hain zuzen ere, Eustaten IPIak zenbatetsi duen ekipamendurako ondasunen ekoizpena, neurri batean EAEko enpresetara zuzentzen baita, %13,7 hazi zen aurtengo lehen hiruhilekoan, baina martxoan eta apirilean nabarmen moteldu zuen erritmoa. Beste aldetik, ondasun mota horren inportazioa, Aduana eta Zerga Berezien Sailak eman duen informazioaren arabera, %18,9 hazi zen, aurreko epealdietako bizitasunari eutsiz.

Dagoeneko aipatua izan denez, kanpo saldoak BPGaren gehikuntzari eginiko ekarpena hutsala izan zen 2016ko hasieran. Beraz, 2015eko lehen hiru hiruhilekoetako egoerara itzuli zen, laugarrenean hiru hamarreneko ekarpen puntuala egin eta gero. Kanpo saldoaren ekarpena berriro hutsala izan zen arren, kanpoarekiko harremanak oso nabarmen areagotu ziren urte hasieran, hala esportazioen atalean nola inportazioenean. Hain zuzen ere, lehenengoak %4,2 areagotu ziren urte arteko tasan eta termino errealean, hots, aurreko hiruhilekoan jasotako tasaren bikoitza. Beste aldetik, inportazioen gorakada %3,9 izan zen. Termino nominaletan, hau da, prezioen bilakaera deskontatu gabe, gehikuntza tasak %3,0 eta %2,5 izan ziren, hurrenez hurren. Zenbaki nominalak eta errealek alderatzen direnean, agerian geratzen da atzerrian saldu eta erosi diren produktuen salneurriak berriro merkatu zirela, batez ere energiaren alorreko produktuenak.

Izan ere, atzerriarekin salerosi diren ondasunen analisiak, tonatan eta eurotan egin, pentsarazten du prezioen jaitiera erregai mineraletan fokatu zela. Zehazkiago adierazita, 2016ko lehen hiruhilekoan atzerriara esportatutako guztiaren balioa %2,4 hazi zen urte arteko tasan, baina esportatutakoaren bolumena %5,4 handitu zen. Erregai mineralei dagozkien zenbakiak honakoak izan ziren: balioan %15,6 hazi ziren eta tonatan, berriz, %38,6. Aitzitik, energiaren bestelako ondasunak %1,4 handitu ziren eurotan, baina bolumena %6,2 gutxitu zen.

Petrolioak nazioarteko merkatuetan izan duen salneurriak justifikatzen du erregai mineralen salmentak eurotan eta tonatan izan duen diferentzia garrantzitsu hori. Lehengai hori %30 inguru merkatu da 2015eko maiatzetik 2016ko hileko berera bitartean, garai hartan upela 64 dolarretan saltzen baitzen eta gaur egun 47 dolarretan. Prezioak hainbeste jaitsi ziren arren, adierazi behar da joera aldatzen ari dela produktu horretan eta azken hilekoetan beheranzko joera irauli egin dela eta urtarrilean prezioek goranzko norabidea hartu zutela. Hain zuzen ere, ekaineko lehen egunetan upelaren salneurria 50 dolarren langa gainditzera iritsi zen. Honek eragina izango du kanpo merkataritzaren etorkizuneko balio bateratuen indizeetan (BBI).

Energiaz bestelako produktuen multzoak hazkunde mugatua (%1,4) izan zuen, baina aurreko bi hiruhilekoetako geldotasunarekin (%0,0) amaitzeko balio izan du. Produktu talde horretan, garraio materialaren bilakaera bikaina azpimarratu behar da. Talde hori EAEko esportazioen egituran pisu gehien dutenetako bat da eta atzerrian saldutakoa %25,0 handitu zuen. Hala ere, bultzada sendo hori gainontzeko talde garrantzitsuen bilakaera motelak konpentsatu zuen, bereziki makinak eta tresnek (%-5,0) eta metalak eta beren manufakturek (%-15,9), dagoeneko lau hiruhileko jarraian jaitsierak pilatu dituztela. Beherakada horien zati bat Aste Santuaren ospakizunaren egutegiak azaltzen du, lehen hiruhilekoko datuetan eragin kaltegarria izango duelako, baina aldeko eragina, ordea, bigarrenekoetan.

Aurreko hiruhilekoetan bezala, salmenten igoera herrialde garatuetan gauzatu zen (%7,0), garapen bidean dauden ekonomiek erosketen zenbatekoa nabarmen (%-16,7) murriztu zuten bitartean. Horren ondorioz, EAEk esportatu zuen guztitik %83,0 ELGE erakundeko herrialde batera zuzendu zen. 2007ra itzuli behar da oraingoa bezalako ekonomia eremuen araberrako banaketa bat aurkitzeko. Salmenten kontzentrazioa herrialde garatuetan bereziki deigarria da erregai mineralen atalean, esportazioen %98 gaur egun herrialde garatuetara bidaltzen direlako, 2014ko eta 2015eko hiruhileko batzuetan azaleratzen ari diren herrialdeek %30 inguruko merkatu kuota bereganatua zuten bitartean. Beste muturrean, garapen bidean dauden herrialdeek portzentaje handiak izaten dituzte makineriaren eta trenbide materialaren salmentetan.

Herrialde garatuen artean, AEBetara bideratutako salmenten bultzada (%15,3) nabarmendu zen, aurreko hiruhilekoko jaitsieraren ondoren. Merkatu estatubatuarraren gorakada hori erregai mineralen bultzada sendoan (%58,7) oinarritu zen, herrialde horretara zuzentzen diren esportazio guztien ia erdia produktu horiek baitira. Izan ere, ekonomia horretara esportatutako erregaien kopurua ia bikoiztu zen (%81,8) aurreko urteko epealdi berean saldu zenaren aldean, baina prezioen jaitsierak eurotan neurtutako gehikuntza apaldu zuen. Garraio materialak ere aldeko bilakaera (%91,6) izan zuen lurralde horretan. Aitzitik, metalak eta bere manufakturen salmenta erdira (%-49,0) gutxitu zen.



Europar Batasuneko multzoak portaera ona erakutsi zuen Araba, Bizkai eta Gipuzkoako produktuen salmentei dagokienez, %7,6 areagotu zirelako. Aurreko hiruhilekoan, eremu horretako lau ekonomia nagusiek erosketak areagotu zituzten, baina 2016ko hasieran aldeko portaera bi bezero nagusietan bakarrik hauteman zen, batean zein bestean EAEko produktuen inportazioa %7,0 baino gehiago hazi zelako. Bi kasuetan, ibilgailu automobilen merkataritza da salerosketen egituraren pisu gehien duen adarra, batez ere Alemaniako merkaturan, non erosketak guztien %50 izatera iristen baita. Produktu horien gehikuntza oso handia izan zen bi herrialdeetan.

### ESPORTAZIOEN HELBURUA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2014	2015	2015			2016	
			II	III	IV	I	I
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,9</b>	<b>-1,3</b>	<b>4,3</b>	<b>-0,2</b>	<b>-2,4</b>	<b>2,4</b>	<b>5.115.064</b>
ELGE	9,4	1,6	6,6	0,2	3,0	7,4	4.245.952
Europar Batasuna	12,9	0,9	6,5	0,9	2,0	7,6	3.436.142
Frantzia	0,8	5,6	13,4	2,9	7,1	7,4	857.985
Alemania	7,0	2,4	5,1	-7,1	14,6	7,7	823.191
Erresuma Batua	11,2	6,8	5,4	16,3	6,6	-0,6	312.799
Italia	9,9	16,9	19,7	6,7	6,8	-3,8	291.145
AEB	18,9	0,7	2,2	9,4	-3,6	15,3	383.919
ELGETik kanpokoak	11,7	-11,0	-3,6	-1,8	-19,5	-16,7	869.112

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Aitzitik, Erresuma Batuan eta Italian salmentak murriztu ziren urte arteko tasan, nahiz eta jaitsierak oso handiak ez ziren izan. Lehen kasuan, automobilen salmentak utzi zituen emaitza onak (%40,5) konpentsatu zuen burdina eta altzairu galdaketaren (%-28,8) eta makineriaren (%-18,4) beherakada. Italian, automobilgintzari lotutako atalek, hala nola ibilgailuak (%25,3) eta kautxuak (%7,8), aldeko emaitza lortu zuten, makineriak bezala (%14,4), baina herrialde horretako EAEko esportazioan pisu handia duten gainontzeko atalek, batez ere galdaketarenak (%-15,2) gorakada horiek konpentsatu zituzten.

Garapen bidean dauden herrialdeen artean, EAEko esportazioen helburu nagusia Txina izan zen berriro, EAEko produktuetan 128 milioi euro gastatu zuelako, 2015eko hiruhileko berean baino %22,3 gehiago. Horrek amaiera eman zion etengabeko jaitsieren bost hiruhilekoko epealdi bati. Txanponaren ifrentzua Brasil izan zen. Herrialde horrek zailtasun handiak dauzka eta EAEko

produktuen erosketak %36,0 gutxitu zituen. Orobat, eremu horretako helburu behinenez ere aipatu denaren antzeko bilakaera erakutsi zuten. Esate baterako, Turkiara bidalitako EAEko esportazioak %24,0 handitu ziren eta Mexikora bidalitakoak, berriz, %16,0 murriztu.

Hirugarren hiruhilekoz jarraian, inportazio guztien balioa gutxitu zen 2016ko hasieran, kasu horretan %7,6, neurri handi batean erregai mineralen merkatzearen ondorioz. Hain zuzen ere, inportatutako erregaien balioa %36,3 jaitsi zen aurreko urteko epealdiaren aldean. Jaitsiera horretatik, %8,6 erositako kantitatearen murrizketaren ondorioa da eta gainontzeko guztia salneurriaren aldaketarena. Inportatutako gainontzeko produktuek %2,0ko gehikuntza apala izan zuten. Beraien artean, berriro nabarmendu ziren garraio materiala (%39,8) eta makinak eta tresnak (%23,1), metal arruntak gutxitu ziren bitartean (%-16,7).

Aurreko hiruhilekoan ez bezala, 2016ko lehen hiruhilekoan erosketen jaitsiera neurri handiagoan gauzatu zen herrialde garatuetan (%-10,4), azaleratzen ari diren herrialdeetan erositakoa oso gutxi (%-1,4) gutxitu zen bitartean. Hala ere, ekonomia eremu horrek hainbat epealdi kateatu ditu jarraian jaitsierak jasotzen. Erregai mineralen erosketak azaltzen du, neurri handi batean, portaera ezberdin hori, oso bereziki Erresuma Batuekin dagoen merkataritza harremana baldintzatu duelako. Herrialde hori izan zen EAEko petrolio hornitzaile nagusia aurreko hiru hiruhilekoetan, baina 2016ko lehen hiruhilekoan ez da ia ezer inportatu herrialde horretatik.

## INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2014	2015	2015			2016	
			II	III	IV	I	I
<b>GUZTIRA</b>	<b>9,9</b>	<b>-3,0</b>	<b>6,7</b>	<b>-5,7</b>	<b>-1,4</b>	<b>-7,6</b>	<b>3.536.003</b>
ELGE	15,0	2,7	27,1	-2,3	1,1	-10,4	2.380.647
Europar Batasuna	30,3	5,5	27,1	-3,0	5,8	-4,5	2.123.858
Frantzia	-0,7	11,7	14,3	11,2	10,2	-12,0	391.827
Alemania	5,9	20,6	25,3	32,4	23,8	23,0	632.446
Erresuma Batua	180,0	15,1	80,6	1,9	-14,8	-56,6	96.778
Italia	2,9	3,5	-3,4	0,3	13,3	-2,5	187.828
AEB	-52,3	2,9	22,9	23,4	19,1	-41,4	70.714
ELGETik kanpokoak	0,9	-14,4	-20,2	-13,1	-7,8	-1,4	1.155.356

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Beste hiruhileko batez, Alemania izan zen EAEko ekonomiaren hornitzaile nagusia, atzerrian erositako guztiaren %18 biltzen duelako, makineriak eta automobilek oso pisu esanguratsua dutela. Halaber, harreman hori areagotu da, zeren eta herrialde horretatik ekarritako inportazioak %23,0 handitu zirelako. Bigarren tokian, baina tarte luze batera, Frantzia dago, inportazio guztien %11rekin. Kasu horretan, galdaketako produktuek pisu garrantzitsua dute eta ia erdira jaitsi zirenez, erosketa guztien zenbatekoa %12,0 jaitsi zen.

Garapen bidean dauden herrialdeek ia ez zuten aldatu EAEn eginiko salmentak (%-1,4). Bertatik bereziki energiako produktuak ekartzen dira. Hain zuzen ere, eremu horretatik inportatutako guztiaren ia erdia erregai mineralak dira, urte arteko tasan zertxobait (%2,7) handitu baitziren. Garapen bidean dauden herrialdeen artean, Txina eta Errusia nabarmendu dira, hurrenez hurren hirugarren eta laugarren tokian daudelako EAEko ondasun hornitzaileen sailkapenean. Lehen kasuan, espezializazioa makinerian eta galdaketa ondasunetan dago, Errusiatik energiako produktuak bereziki iristen diren bitartean. Azken horren erosketa nabarmen handitu zen (%57,3) aurreko urtean eginikoaren aldean.

Esportazioen eta inportazioen konbinaketak 1.579 milioi euroko saldoa utzi zuen merkataritzaren alorrean, EAEn aldekoa. Diru kopuru horrek aurreko lau hiruhilekoetan jasotakoa gainditu zuen. Saldoaren hobekuntza energia alorreko defizitaren murrizketari esker lortu zen, beraren saldo negatiboa aurreko hiruhilekoko 488 milioi euroetatik 2016ko lehen hiruhilekoko 283 milioi euroetara gutxitu zelako. Aitzitik, energiaren bestelako saldoa 1.845 milioi euroko kopuruan kokatu zen, hau ere garrantzitsua izanik ere aurreko hiruhilekoan lortutakoa (2.007 milioi euro) baino txikiagoa da. Merkataritzako saldo ia guztia herrialde garatuekin eskuratu zen, azaleratzen ari diren herrialdeekiko saldo negatiboa baina txikia (-286 milioi euro) izan zelako.

## Prezioak

Berrito ere, 2016ko hasieran prezioen bilakaera erakusten duten adierazle gehienek aldakuntza tasa negatiboak jaso zituzten. Salbuespena BPGaren deflatorea izan zen, tasa positibo bat, baina oso txikia (%0,1) markatu zuelako, aurreko baliotik (%0,0) gehiegi aldendu gabe. Prezioen jaitsiera biziagoa da kanpo merkataritzaren osagaietan, hala esportazioetan nola inportazioetan. Barne eskarian, berriz, deflatorea hutsala izan zen (%0,0), kontsumoan bilakaera negatiboa (%-0,2) eta kapital eraketa gordinean garestitzea (%0,5) gauzatu ziren bitartean.

Kontsumoko prezioei dagokienez, KPI indizeak eskaini duen informazioak adierazten du urte arteko jaitsierak areagotu direla urtea aurrera joan den heinean. Izan ere, 2015eko amaieran indize orokorraren tasa %0,3 izan zen bitartean, 2016ko lehen hiruhilekoko batez bestekoa tamaina bereko jaitsiera batean kokatu zen, apirilean eta maiatzean, ezagutu diren azken bi datuak baitira, %-0,7ra areagotu zena. Aurreko buletinetan ere aipatu denez, petrolioaren salneurriak nazioarteko merkatuetan izan duen beherakadak baldintzatu du KPIaren bilakaera.

### KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2014	2015	2015		2016	Ekarpena
			IV	I	Maiatza	
<b>Inflazio osoa (%100)</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,1</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,7</b>	<b>-0,7</b>
<b>Azpiko inflazioa (%82,6)</b>	<b>0,3</b>	<b>0,7</b>	<b>1,0</b>	<b>1,2</b>	<b>0,8</b>	<b>0,6</b>
- Elikagai landuak (%14,1)	0,0	1,1	1,7	1,7	1,3	0,2
- Industria ondasunak (%26,6)	0,1	0,3	0,6	0,8	0,6	0,1
- Zerbitzuak (%41,9)	0,6	0,8	1,0	1,3	0,8	0,3
<b>Hondar inflazioa (%17,4)</b>	<b>-0,6</b>	<b>-4,5</b>	<b>-4,8</b>	<b>-6,8</b>	<b>-7,6</b>	<b>-1,3</b>
- Landu gabeko elikagaiak (%6,8)	-1,2	1,9	2,8	3,1	2,7	0,2
- Energia (%10,6)	-0,1	-8,4	-9,5	-12,8	-13,8	-1,5

Iturria: INE.

Hain zuzen ere, Brent motako petrolio upelaren prezioak %25etik zertxobait gorako urte arteko jaitsiera ezagutu zuen maiatzean eta horrek KPIaren energia atalaren %13,8ko beherakada eragin zuen. Hala eta guztiz ere, beheranzko joera hori galgatu da aurtengo lehen hilekoetan eta urtarrilean zein otsailean kostatu zen 31 dolarretatik ekaineko lehen egunetan balio duen 50 dolarretara garestitu da. Goranzko bilakaera hori munduko eskaintza gehiegizkoaren eta espero zena baino eskari handiagoaren ondorioa da. Izan ere, LPEEko eta erakunde horretatik kanpoko herrialdeen ekoizpena gutxitu zen, Iraken, Nigerian, Arabiar Emirerri Batuetan, Kanadan eta AEBetan izan diren arazoaren ondorioz. Orobat, petrolio gordinaren eskaria handitu da, neurri handi batean Indiaren eta AEBen bultzadaren ondorioz, hain zuzen ere lehengaiaren prezio merkeak eraginda.

Inflazio globala ez bezala, azpiko inflazioak, oro har, goranzko joera leuna finkatu zuen, ekonomia jardueraren eta, batez ere, kontsumo pribatuaren bizitasunaren ondorioz. Hala ere, joera hori apirilean eta, neurri txikiagoan, maiatzean gelditu zen, zerbitzuetako prezioak gutxitu

zirelako, Aste Santuaren ospakizunen egutegia ezberdina izan zelako aurten eta iaz. Aurten martxoan ospatu da eta iaz apirilean.

Azpiko inflazioa osatzen duten hiru talde bereziek tasa baxuxeagoa erakutsi zuten maiatzean lehen hiruhilekoan baino. Esate baterako, elikagai landuen prezioak %1,3 hazi ziren, aurreko bi hiruhilekoetan markatu zuten %1,7aren aldean. Beste aldetik, energiaz bestelako industria ondasunak %0,6 igo ziren, aurreko epealdietako balioetatik asko aldendu gabe. Alde handiena zerbitzuetako prezioetan hauteman da, maiatzean puntu erdi bateko moteltzea izan zutelako, neurri handi batean opor antolatuen salneurriek jaitsiera iragankorra izan zutelako, Aste Santuaren efektuaren ondorioz.

Aitzitik, hondar inflazioak beherakada bizia erakutsi zuen aurtengo lehen hilekoetan, 2014ko eta 2015eko merkatzei jarraipena emanez. Hala eta guztiz ere, adierazle horretako osagai bakoitzak kontrako bilakaera izan zuen. Alde batetik, elikagai freskoak gaur eguneko talde inflaziogileena da (%2,7) eta energiako produktuek serie historiko osoaren beherakada handiena pairatu dute (apirilean %-14,7 eta maiatzean %-13,8).

### EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2014	2015	2015			2016	
			II	III	IV	I	Maiatza
<b>Indize orokorra</b>	<b>0,2</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,1</b>	<b>-0,2</b>	<b>-0,1</b>	<b>-0,3</b>	<b>-0,7</b>
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	-0,6	1,4	1,4	2,1	2,2	2,4	2,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,0	0,9	1,1	0,9	0,9	0,3	0,4
Jantziak eta oinetakoak	0,2	0,4	0,5	0,5	0,5	0,5	0,8
Etxebizitza	2,0	-1,7	-1,3	-1,5	-2,5	-5,6	-6,4
Etxeko hornidura	-0,4	0,0	0,1	-0,4	0,2	0,1	0,3
Medikuntza	4,3	0,1	-0,3	-0,1	0,9	1,0	1,0
Garraioa	-0,5	-4,1	-2,6	-4,9	-4,1	-3,8	-4,6
Komunikazioak	-6,1	-1,7	-2,3	-0,5	0,6	2,2	1,8
Aisia eta kultura	-1,2	-0,2	-0,7	0,2	0,1	-0,3	-2,2
Irakaskuntza	2,7	2,2	2,7	2,6	0,7	0,5	0,5
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	0,7	0,3	0,1	0,4	0,6	1,2	1,0
Besteak	1,2	1,7	1,6	1,6	1,8	1,8	1,6

Iturria: INE.

Aurreko hiruhilekoetan gertatu zen bezala, petrolioaren prezioak eragin handiena duen taldeek balio negatiboak jaso zituzten. Hori horrela izanda, etxebizitzaren atalaren urte arteko aldakuntza tasa %-6,4an kokatu zen, petrolioaz gain argindarra ere merkatu zelako, aurreko urteko igoeraren ondoren. Garraioarena, berriz, %-4,6ra iritsi zen, erregaien salneurri apalengatik. Bi horiez gain, aisia eta kultura taldeko jaitsiera nabarmena (%-2,2) ere azpimarratu behar da, Aste Santuaren efektuak eraginda. Beste muturrean, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (%2,0) eta komunikazioak dira %2,0ko erreferentziara gehien hurbildu diren taldeak.

Industriako prezioek gero eta balio negatiboagoak jasotzen jarraitu zuten, beheranzko erritmoa oso nabarmen bizkortu zutelarik, %-4,9ra iritsi arte. Hala ere, prezioen beherakada bizi hori ez da orokorra industriaren barnean eta oso bereziki energiako produktuetan gauzatu da, talde horren balioa %-19,2 izan zelako. Bitarteko ondasunek ere, lehengaei lotuta baitaude, salneurria %2,8 merkatu zuten, baina bai kontsumoko ondasunak (%0,1) bai ekipamendurako ondasunak (%0,7) zertxobait garestitu ziren.

Azkenik, hitzarmen kolektiboek nolabaiteko bizkortzea iradoki zuten soldaten igoeran 2016ko lehen hilekoetan. Hala indarrean dauden hitzarmenen nola urtean zehar sinatutako hitzarmenen gehikuntzak lau hamarrenetan gainditu zuten 2015erako adostu zen igoera. Hala ere, soldaten igoera horiek oso txikiak dira krisiaren aurreko urteetan sinatu ziren akordioekin alderatzen badira. 2015ean bezala, ez dago alderik sektoreko eta enpresako hitzarmenetan adostu diren soldata igoeren artean.

#### HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2012	2013	2014	2015	2016 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	2,7	1,3	0,7	0,6	1,0
- Urtean zehar sinatutakoak	2,0	1,1	0,5	0,9	1,3
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	2,7	1,3	0,8	0,6	1,0
- Enpresako hitzarmenak	2,6	1,2	0,6	0,6	1,0

(\*) 2016ko apirila arte erregistratutako hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

## Aurreikuspenak

Beheranzko zuzenketa txiki batzuk egin ondoren, ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten nazioarteko erakunde nagusiek gaur egun bere horretan uzten ari dira etorkizunari buruzko zenbatespenak. Esate baterako, ELGEk, maiatzeko txostenean, ez zuen aldatu munduko ekonomiarako aurreikuspena eta aurreko dokumentuan aurkeztu zuenari eutsi zion. Zenbaki horiek iradokitzen dute 2016ko hazkundera 2015ekoaren oso antzekoa izango dela eta jarduera erritmoa hamarren gutxi batzuk bizkortuko dela 2017an. Oro har, adierazten du herrialde garatuak erritmo egonkorrean baina ez oso altuan hazten ari direla eta azaleratzen ari diren batzuek gehikuntza moteldu dutela. Hazkunde apaleko tranpa deritzo horri. Handik ateratzeko zerga politika hedakorragoa eta hazkunde potentziala handituko duten egiturazko erreformak abiaraztea beharko dira. Consensus Forecastek bat egiten du ikuspegi horrekin eta munduko ekonomia aurten %2,4 bakarrik haziko dela seinlatu du, truke tasan kalkulata, ez erosteko ahalmen parekotasunean. Datorren urterako susperraldi leuna espero du.

### EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2015	2016	2017	2015	2016	2017
Munduko ekonomia	2,6	2,4	2,8	2,1	2,6	2,8
AEB	2,4	1,8	2,3	0,1	1,2	2,3
Kanada	1,2	1,7	2,2	1,1	1,6	2,0
Japonia	0,5	0,5	0,5	0,8	0,0	1,5
Eurogunea	1,5	1,6	1,6	0,0	0,2	1,3
Europar Batasuna	1,9	1,8	1,8	0,1	0,4	1,5
Alemania	1,7	1,6	1,5	0,3	0,4	1,6
Espainia	3,2	2,7	2,3	-0,5	-0,3	1,3
Frantzia	1,2	1,3	1,5	0,0	0,2	1,2
Herbehereak	2,0	1,5	1,7	0,6	0,7	1,4
Italia	0,8	1,1	1,2	0,1	0,1	1,1
Erresuma Batua	2,3	1,9	2,2	0,0	0,7	1,7
Asia eta Ozeano Barea	4,6	4,4	4,4	1,6	1,7	2,2
Ekialdeko Europa	0,2	1,1	2,3	8,2	6,0	5,1
Amerika Latinoa	-0,2	-0,6	2,0	10,6	13,1	8,2

Iturria: Consensus Forecast (2016ko maiatza).

Aurreikuspenetan beheranzko zuzenketa pairatu duten herrialdeetako bat AEB da. Izan ere, aurtengorako aurreikuspena orain ez da %2,0ra iristen, nahiz eta datorren urtean suspertuko den. Munduko lehen ekonomiaren sendotasunaz dauden zalantzak ez dira guztiz desagertu, langabezia tasa enplegu beteko mailan egon arren. Ziurtzat jotzen zen Erreserba Federalak ekainean interes tasak igoko zituela, baina erakunde horren aipamen batzuek pentsarazten dute erabaki hori irailera arte atzeratu daitekeela. Erresuma Baturako epe laburrerako hazkunde aurreikuspenak ere beherantz zuzendu dira, neurri batean Brexitak izan ditzakeen ondorio negatiboengatik, hala merkataritzako alorrean nola finantza munduko zentro gisa jokatzeko duen paperean.

Euroguneari dagokionez, aurreikuspenak zertxobait hobetu dira, baina oraindik pentsatzen da hazkunde erritmoa balio neurritsuetan kokatuko dela, %1,6aren ingurukoa, atzeko haizeek (petrolioaren prezio apalak, moneta politika hedakorrak eta euro ahulak) oraindik hazkundeari mesedea egiten dioten arren. Eremu horretan dauden ziurgabetasunak lotuta daude iheslarien krisiarekin, Europako Banku Zentralaren politika hedakorrak ekarri dituen interes tasa negatiboekin, austeritateko politikarekin eta lehenago aipatu den Erresuma Batua Europar Batasunetik irteteko aukerarekin. Hazkunde mugatuko panorama horretan, ekonomia zirkulazioan atzerago dauden herrialdeak urratsez urrats gainontzekoen mailara hurbildu dira, baina gutxi dira %2,0tik gorako hazkunde aurreikuspena dutenak.

Zenbaki hori gainditzen duten herrialdeetako bat Espainia da. ELGE erakundearen ustez, BPGaren aurtengo hazkunde tasa %2,8an kokatuko da, Europako batez bestekotik oso gora. Bizitasun garrantzitsu hori datorren urtean motelduko da (%2,3), oraindik Europari laguntzen dioten faktoreak desagertuko diren heinean. Moteltzeko aurreikuspen horrekin bat egiten du CEPREDEK ere, 2016rako aldakuntza tasa %2,5ean eta datorren urtekoa %2,0an kokatu baititu. Hala eta guztiz ere, hiruhilekoko bilakaerak adierazten du hazkundera 2017ko hasieran egonkortuko dela eta data harez geroztik gehikuntza erritmoa berriro bizkortuko dela, inguruneak biziko duen hobekuntzak lagunduta. Espainiako BPGaren hazkundera barne eskariaren sendotasunean oinarrituko da, hala kontsumo pribatuarenean nola kapital eraketa gordinarenean. Aitzitik, kanpo eskariak hamarren gutxi batzuk kenduko dizkio BPGaren gehikuntzari, bai aurten bai datorren urtean.

Enpleguari dagokionez, CEPREDEren aurreikuspenak produktibitatearen irabazia suspertuko dela seinatzen du, azken bi urteetan oso txikia izan baita. Horrek enpleguaren hazkundera %1,8ra 2016an eta %1,1era 2017an mugatuko du. Gehikuntza tasa horiek esan nahi dute 303.000 lanpostu sortuko direla aurten eta 187.000, berriz, 2017an. Hori horrela izanda ere, langabezia tasa %20aren zertxobait gainera egongo da epealdi horren amaieran.



**ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2016ko maiatza)**

## Urte arteko aldakuntza tasak

	2016			2016
	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>2,7</b>	<b>2,1</b>	<b>1,9</b>	<b>2,5</b>
Kontsumo pribatua	3,2	2,5	2,1	<b>2,8</b>
Kontsumo publikoa	1,8	1,5	1,4	<b>1,7</b>
Kap. finkoaren eraketa gordina	4,2	4,1	4,2	<b>4,5</b>
- Inbertsioa ekipamenduan	6,0	5,0	4,4	<b>5,9</b>
- Inbert. landutako aktibotan	5,9	3,9	4,1	<b>5,0</b>
- Inbertsioa eraikuntzan	2,8	3,0	3,3	<b>3,3</b>
Barne eskaria	3,2	2,6	2,5	<b>3,0</b>
Esportazioak	5,1	5,1	4,8	<b>5,1</b>
Inportazioak	6,7	6,8	7,1	<b>6,7</b>

Iturria: CEPREDE.

Buletin honetan aurkeztu den EAEko ekonomiaren inguruneke informazioak ez du ezuste garrantzitsurik ekarri Ogasun eta Finantza Sailak martxoan egin zuen aurreikuspenera. Beraz, garai hartan egin zen 2016rako zenbatespena bere horretan utzi da. Zehazkiago, EAEko ekonomia aurten eta urteko batez bestekoan kalkulaturik %2,5 haziko dela espero da. Tasa hori 2015ean eskuratutakoa baino hiru hamarren bakarrik txikiagoa da.

Eskariaren aldetik, barneko jardueraren sendotasuna nabarmendu behar da, aurtengo hazkundearen zati handiena hortik etorriko delako. Halere, kanpo saldoak ekarpen txiki bat egingo duela aurreikusten da, nahiz eta bi hamarrenkoa baino handiagoa ez den izango. Barne eskariaren bi osagai nagusiek %2,0aren gaineko aldakuntza tasak erakutsiko dituzte, eta kapital eraketa gordinak azken kontsumoaren emaitza gaituko du.

Sektoreen bilakaerari dagokionez, azpimarratu behar den ezaugarria industriaren sendotasuna da, zerbitzuena baino portaera dinamikoagoa erakutsiko duelako, baina bai industriak bai zerbitzuek %2,5eko langa gaituko dute. Eraikuntzak hainbat pausu emango ditu suspertzeko bidean, baina sektore horren balio erantsia hamarren gutxi batzuk bakarrik haziko da aurten, aurreikuspen honen arabera.

Azkenik, urtean zehar prezioek suspertze arina izango dutela espero da. Hori dela eta, BPGaren deflatoreak zenbaki positiboa jasoko du, urteko batez bestekoan txikia izango den arren. Enpleguari dagokionez, aurreikuspenak %1,7ko gehikuntza seinalatzen du urte osorako, 2015ekoaren antzerakoa.

#### EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2016ko martxoa)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016				2016
	I	II	III	IV	
<b>BPG</b>	<b>3,0</b>	<b>2,7</b>	<b>2,3</b>	<b>2,0</b>	<b>2,5</b>
Azken kontsumoa	2,5	2,3	2,0	1,7	2,1
Kontsumo pribatua	2,9	2,6	2,2	1,9	2,4
Kontsumo publikoa	1,1	1,2	1,0	1,0	1,0
Kapital eraketa gordina	2,8	2,7	2,5	2,5	2,6
Barne eskariaren ekarpena	2,7	2,5	2,2	1,9	2,3
Kanpo saldoaren ekarpena	0,3	0,2	0,1	0,2	0,2
Lehen arloa	2,8	0,7	-0,8	-1,9	0,2
Industria eta energia	3,9	3,1	2,6	2,0	2,9
Eraikuntza	0,1	0,5	0,7	0,7	0,5
Zerbitzuak	2,9	2,7	2,5	2,4	2,6
Balio erantsi gordina	3,0	2,7	2,3	2,1	2,5
ekoizkinen gaineko zergak	2,9	2,6	1,9	1,8	2,3
BPGaren deflatorea	0,2	0,5	0,9	1,2	0,7
Enplegua	2,0	1,8	1,6	1,5	1,7

Iturria: Ogasun eta Finantza Saila.